

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 24/2018 Foru Dekretua, ekainaren 5koa. Onestea nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien aldaketa, zeinak ekainaren 25eko 32/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren (ondoren, irailaren 20ko 64/2016 Foru Dekretuak aldatu zuen 32/2014 Foru Dekretu hori), eta, orobat, laguntza lerro horren 2018rako dirulaguntza**

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez, nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu ziren, Landa Garapenerako 2007-2013ko Planaren barruan LGNEFk finantzatutako laguntza moduan.

Landa Garapenerako Plan hori amaitu zenean, laguntzak ez ziren 2015-2020ko LGParen barruan sartu eta nazioko laguntzat jo ziren. Horretarako, ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretua Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 64/2016 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

Oinarri arautzaileen foru dekretu horretan aipatzen dira, batetik, laguntzen baldintzak arautzen dituzten Europako eta erkidegoko arautegia, dagoeneko indargabetuta dagoena, eta, bestetik, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei eta transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua. Lehenengo hori, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak indargabetu zuen -indarrean 2016ko urriaren 2tik-, eta, bigarrena, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak -indarrean 2016ko urriaren 29tik-. Hori dela eta, oinarri arautzaile horiek eguneratu egin behar dira.

Halaber, ohikoa izan bada ere laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko ehunekoa aplikatzeko orduan BEZaren zenbatekoa diruz lagundu ezin den gastutzat jotzea, balizko pertsona onuradunen defentsarik eza saihesteko, ezinbestekoa da alderdi hori espresuki oinarri arautzaileetan jasotzea.

Bestetik, Aldundiaren 2018rako gastu aurrekontuan laguntza horietarako partida bat dago jasota, "Aholkularitza zerbitzuak erabiltzea" 60.000,00 euroko zuzkidurarekin. Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak arautzen dituzten oinarrietan aldaketa hauek onartzea (Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu, eta Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 64/2016 Foru Dekretuaren bidez aldatu zirenak):

1.1. Aldatzea 1. artikularen 1.a.1 atala, zehazten duena, xedearen barruan, aholkularitzak izan behar dituen gutxienerako alderdiak, eta 1. artikularen c atala. Hona nola geratuko den idatzita:

1.a.1. Ezinbesteko kudeaketa betekizunak eta nekazaritza eta ingurumen baldintza egokiak, laguntza emateko unean indarrean dagoen Europako eta erkidegoko araudiaren arabera. 1.c. Pertsona edo norbanakoen datuei buruzko informazioa jakinarazteko debekua dela eta, aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeek nekazaritzako baldintza egokiak arautzen dituen Europako arautegian zehaztutakoa bete beharko dute. Halaber, informazio horri datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa aplikatuko zaio.

1.2 Laguntzen era, zenbatekoa eta ordainketa arautzen dituen 4. artikulua 1 eta 3.1 atalak aldatzea, eta balizko laguntzak handitzea. Hona nola geratuko den idatzita:

4.1. Emandako dirulaguntza ez da itzuli beharko. Dirulaguntza hori, gehienez, aholkularitza zerbitzuagatik urtean fakturatzen eta ordaintzen den kostuaren ehuneko 80 izango da (BEZa kanpo), eta sekula ez da izango segidako hiru urtean 1.500,00 euro baino gehiago aholkularitza zerbitzuko eta ustiattegiko; hots, gehienez, urteko 500,00 euro emango dira.

4.3.1 Ehuneko 20, ustiatagia Natura 2000ko zonetan badago edo Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 20ko 9/2018 Foru Dekretuan zehazten diren mendialdeko zonetan edo mendiaz bes-telako zona behartsuetan badago. Foru Dekretu horrek Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretua aldatu zuen, zona horietan dauden nekazaritza ustiatagien konpentsazio ordainketak arautzen dituena.

1.3 Izapideak, ebazpena eta jakinarazpena arautzen duen 6. artikulua 2. atala aldatzea. Hona nola geratuko den idatzita:

6.2 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota, berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskaera ezetsi dela esan nahiko du, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 23.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

1.4 Ondorioak eta onuradunen betebeharrak arautzen dituen 8. artikulua aldatzea. Hona nola geratuko den idatzita:

Foru dekretu honetan xedatutako dirulaguntzen onuradun diren pertsonen lege hauek bete beharko dituzte: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako araudi aplikagarria, baita estatuko eta autonomia erkidegoko arauetan ezarritako gainerako xedapenak ere. Horrez gain, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta, hala badagokio, Kontuen Auzitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dieten informazio guztia eman beharko dute, aipatutako foru arauaren 48. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

1.5 Itzulketak eta zuzenketak arautzen dituen 11. artikuluko 1. eta 3. atalak aldatzea. Hona nola geratuko diren idatzita:

11.1. Jasotako dirulaguntza guztia edo haren zati bat gehi dirulaguntza eman zenetik aurrerako berandutze interesak, itzuli egin beharko dira otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntza eta transferentziei buruzkoak, 35. artikuluan edo laguntzen aplikazioari buruzko araudiak aurreikusitako kasuetan. Halaber, horietako egoeraren batean daudenei etorkizunean egin beharreko ordainketen edo eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere murriztuko zaie. Diru kopuru horiek sarrera publikoak izango dira legezko ondorioetarako.

11.3 Jasotako dirulaguntza guztia edo zati bat itzuli edo dirulaguntza edo ordainketak murriztu behar izateak ez du zerikusirik izango Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutako arauak hausteagatik abiarazi daitekeen zigor prozesuarekin.

Bigarrena. 2018ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

— Eskaerak aurkezteko tokia: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenek, 16.4 artikuluan ezarritakoetan aurkeztu ahalko dira.

– Eskaerak aurkezteko epea: hilabete, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

– Kreditu erreserba: 60.000 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren 40.1.01.42.01.481.00.01 “Aholkularitza zerbitzuak erabiltzea” partidaren kontura.

– Arabako Foru Aldundiaren funtsetatik, eta haren funtsetatik baino ez, emango dira laguntzak.

Hirugarrena. Aurten, laguntza lerro honetarako deialdia egiten da 2017an egindako aholkularitza zerbitzuetarako, eta 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egindako gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu bezala.

Laugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea deialdia ebazteko eta foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteroko deialdiak ebazten dituen ebazpenaren kontra aurkezten diren errekurtsioak ebazteko.

Bosgarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 5a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritzako zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**